

Gipuzkoako eskola kirolaren bilakaera 1989-2005

(The development of school sport in Gipuzkoa between
1989 and 2005)

Ugarteburu Artamendi, Iñaki; Fernández de Larrinoa,
Imanol

Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako plaza, z/g. 20004 Donostia
iugarteburu@gipuzkoa.net

BIBLID [1137-4447 (2006), 15; 15-20] Jaso: 06.10.23
Onartu: 06.11.24

Gaur egun Gipuzkoan egiten den eskola kirola 1989an onartutako foru dekretu baten bidez jarri zen abian. Hala ere, eskola kirolaren ereduaz ezartzean gorabehera batzuk izan dira, jarduera eskaintza eratu eta kirol jarduera horiek aurrera eramateko egitura egonkorra finkatu arte. Ondorioz, Gipuzkoako eskola kirolak aurrerapauso handia egin du, bai alderdi kuantitatiboetan (partaideen eta kirol modalitateen kopurua), baita alderdi kualitatiboetan ere.

Giltza-Hitzak: Eskola kirolari buruzko araudia. Antolaketa egitura. Emaitzak. Alderdi kuantitatiboak. Alderdi kualitatiboak.

El deporte escolar practicado hoy en día en Gipuzkoa se puso en marcha gracias a un decreto foral aprobado el año 1989. Sin embargo, a la hora de implantar el modelo de deporte escolar ha habido altibajos hasta constituir una oferta de actividades e implantar una estructura permanente que lleve adelante dichas actividades deportivas. En consecuencia, el deporte escolar de Gipuzkoa ha experimentado un gran avance, tanto en los aspectos cuantitativos (número de participantes y modalidades deportivas) como en los cualitativos.

Palabras Clave: Reglamento del deporte escolar. Estructura organizativa. Resultados. Aspectos cuantitativos. Aspectos cualitativos.

Le sport scolaire pratiqué aujourd'hui en Gipuzkoa s'est mis en marche grâce à un décret foral approuvé en 1989. Néanmoins, au moment d'implanter le modèle de sport scolaire il y a eu des hauts et des bas jusqu'au moment où l'on a pu constituer une offre d'activités et implanter une structure permanente qui fasse avancer ces activités sportives. En conséquence, le sport scolaire de Gipuzkoa a expérimenté un grand pas en avant, aussi bien dans les aspects quantitatifs (nombre de participants et de modalités sportives) que dans les aspects qualitatifs.

Mots Clés: Règlement du sport scolaire. Structure organisationnelle. Résultats. Aspects quantitatifs. Aspects qualitatifs.

1. ARAUDIA

Gaur egun Gipuzkoan indarrean dagoen eskola kirolaren sistema Gipuzkoako Foru Aldundiak *1989ko abuztuaren 31ko 49/1989 Foru Dekretua* onartu zuenean jarri zen abian. *Dekretu haren bitartez benjamin eta alebin kategorietako lehiaketako kirol jardueren antolaketa arautu nahi izan zen.*

Horren ondoren, *Eusko Jaurlaritzak eskola kirolari buruzko 160/1990 Dekretua onartu zuen* eta hori da, hain zuzen, gaur egun Gipuzkoan indarrean dagoen eskola kirolaren sistemaren oinarria, bai jardueren eskaintzari dagokionez bai eskaintza hori aurrera eramateko antolaketa egiturari dagokionez.

Eredu hori indarrean jartzeko izan dugun oztopo nagusietako bat izan da ez dela irizpide batasunik izan Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeen artean, eta horren ondorioz desberdintasunak egon dira eta plana gutxiesteko erabili da. Ez *337/1994 Dekretuak*, *160/1990 Dekretua* aldatu zuenak, ez eta *14/1998 Kirolaren Legeak* ere ez dute lortu Euskal Autonomia Erkidegoan eskola kirolaren eredu homogeneoa zabaltzerik, nahiz eta Kirolaren Legeak eskola kirolaren kontzeptua, printzipio orokorrak eta jomugak, argi eta garbi azaldu zituen, eta bertan esku hartzen duten agenteen eskumenak eta betebeharrak ezarri zituen.

Horregatik, hiru foru aldundietako eta Eusko Jaurlaritzako teknikariek osatutako Koordinazio Batzordeak bere jardueraren lehen helburu gisa ezarri zuen eskola kirolari buruzko dekretu berri bat prestatzea, *14/1998 Kirolaren Legea* garatuz.

Hala, dekretu berria izango zenaren egituraren zirriborroa adostu zuten, 2002ko martxoko txostenean jasota dagoen bezala. Txosten hark jasotzen zituen arautu behar ziren alderdi nagusiak. Azpimarragarrienak honako hauek ziren, besteak beste: eskola kirola kategoria edo adinen arabera antolatzea; jarduera motak azaltzea, kirol irakaskuntzakoak barne; parte hartzeko egiturak banan-banan azaltzea, haietako bakoitzaren eginkizunak emanda; eskola kirolaren diharduten teknikariek prestakuntza aldetik bete behar dituzten gutxieneko eskakizunak eta eduki behar dituzten titulazioak; eta bestelako gai batzuk, hala nola, mediku azterketak, aseguruak, eta abar; baita erakundearteko koordinazio batzorde bat sortzea ere.

Kirolaren Euskal Plana egiteko erabakia hartu zenean ordura arte egindako lana etenda utzi zen plana onartu bitartean. Onartu ondoren, 2003ko erdi aldean, eskola kirolari buruzko dekretu berria prestatzen eta adosten hasi zen. Horren oinarri hartutako egitura lehen aipaturiko txostenekoa izan zen, Kirolaren Euskal Planean adierazitako aldagetak kontuan izanda, jakina, esate baterako, hiru kirol ibilbide finkatu ziren, eta parte hartzeko gehienezko kopuruak ezarri ziren horietako bitan, errendimenduan hastekoan, eta talentudunak eta etorkizuneko kirolariak identifikatzekoan, hain zuzen ere.

Halaber, Kirolaren Euskal Planak eta eskola kirolari buruzko dekretuaren zirriborroak aldaketa handia dakarkiotte gaur egun Gipuzkoan indarrean dagoen

eskola kirolaren antolaketari: kirol klubak parte hartzeko lehentasunezko egiturak dira parte hartzeko ibilbidean infantil kategoriatik hasita.

2. ESKOLA KIROLAREN EREDUA EZARTZEA

Gipuzkoako eskola kirolaren ereduak bi oinarri hauek izan ditu azken urteotan:

Batetik, jarduera eskaintza egokituz joan da, gero eta modalitate eta diziplina gehiago hartuz, federazioekiko akordioak bitarteko direla. Eskaintza horren barruan lau jarduera multzo handi daude: heziketa eta jolas helburuko lehiaketak, sustapen jarduerak, teknifikazio jarduerak, eta errendimenduan hasteko lehiaketak.

Bestetik, antolaketa egitura jakin bat garatu da eta egitura horretan eskola kirolean parte hartzen duten agenteek zeregin osagarriak betetzen dituzte, eta udaletako kirol zerbitzuek, ikastetxeek, klubek eta federazioek ere parte hartzen dute.

Eredu hori ezartzeko bidean bi irizpide nagusi izan ditugu:

Kirol sistema sistema bizia da, etengabe aldatuz doana, eta bizitasun horren eraginez tirabira ugari sortzen dira.

Sistemak berak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatu behar dira, esaterako, modalitate jakin batzuk aurrez ezarri, eragile onak diren agenteak baliatu, etorkizunean oihartzun handia izan dezaketen kirol berriak sartu, eta abar.

Jarrera edo ikuspuntu hori dela eta, eredu abian jartzeko faseak modu batera edo bestera bideratu ditugu; hasieran, esate baterako, proposamenak zurrungoak ziren, ereduaren funtsa gal ez zedin, baina denbora aurrera joan ahala malgutuz joan dira, behar besteko onarpen maila lortu ondoren.

Jarrera malgu hori ekarri duena da, era berean, esku hartze eremuetan oso errealitate desberdinak egotea:

Kirol modalitateak oso desberdinak dira elkarren artean, alderdi askotatik begiratuta: modalitatearen eta/edo osagai dituen diziplinen ezaugarriak, lurralde osoan duten ezarpen eta garapen maila, aritzeko garai egokiak, gero-ko urteetan kirola egiten jarraitzeko aukera, eredu eragingarriak beste kirol batzuetara aldatzeko aukera, eta abar.

Beste gorabehera pragmatikoago batzuk, esaterako, modalitate batzuek sistema osoari presioa egiteko duten gaitasuna, eta ordainetan beste gauza batzuk lortzeko duten trebetasuna, ez bakarrik diruzkoak, baita ere tarteko diren administrazioen aldetik tratu malguagoa jasotzeko buruzkoak.

Inplikazio eta jardun maila oso desberdinak tarteko diren eragile-taldeen, bai ikastetxeen artean bai klub, federazio eta udalen artean.

Hori dela eta, inplikazio maila desberdinak identifika daitezke, egiturazko egoeren ondorio direnak, hala nola, ikastetxeen kasuan irakaskuntzako sare publikoan edo pribatuan egotea. Kluben kasuan egiturazko alderditzat jo daiteke kirol bakarrean jardutea edo diziplina anitzeko bokazioa izatea, kirol sail bat baino gehiago edukita, edota bere lurralde eremuko elkartzeko mailan monopolioa edukitzea, edota jarduerak edo programak gauzatzeko orduan beste klub batzuekin lehian aritu behar izatea.

Kontuan hartu behar dira, gainera, faktore pertsonalak, hau da, entitate bakoitzean pertsona batzuek inplikazio gaitasun eta maila handiagoak edo txikiagoak edukitzea, horrek berarekin baitakar entitatearen kirol jarduerari bultzada handiagoa edo txikiagoa ematea.

Udalen esku-hartzeetan ere era guztietako aukerak bereiz daitezke, hasi bokazio interbentzionista nabaria duten udaletako kirol zerbitzuetatik, eta toki-ko kirol sistemaren antolaketan eragin txikia edo hutsa duten udaletaraino.

Azkenik, federazioei dagokienez ere, sorta zabala topatzen dugu, hasi gehienbat ikuspegi administratiboa duten entitateetatik, eta bere modalitatearen kirol garapenean bete-betean sartutako entitateetaraino.

3. EZARPEN PROZESUAREN EMAITZAK

Ezarpen prozesu honen emaitzak baloratzerakoan ez dago zalantzarik, emaitzak onak izan dira alderdi kuantitatibotik begiratuta, baina ez alderdi kualitatibotik begiratzen badiogu. Horrekin esan nahi dugu ikasle gehiagok parte hartzen duela jardueretan, baina oso txikia dela kirolen kalitate maila.

Orokortze ororekin gertatzen den bezala, halako balorazio batek ezkutatu egiten ditu erdietsitako lorpenak eta ikasleek egiten dituzten kirolen kalitate maila areagotzeko asmoz egin diren eta egiten ari diren urratsak.

3.1. Alderdi kuantitatiboak

Hona hemen alderdi kuantitatibo azpimarragarrienak:

Jarduera eskaintza nabarmen hazi da: 20 kirol modalitate eskaintzen hasi ginen eta gaur egun 38 eskaintzen ditugu.

Udalekin lankidetzan aritzeko hitzarmenak nabarmen hazi dira: 1993an 3 hitzarmen sinatu genituen, orain 54 ditugu sinatuta, eta guztira 62 udalek parte hartzen dute.

Eskaintzen ditugun jardueretan parte hartzen duten ikasle kopuruak ere gora egin du, % 30etik % 70era, hain zuzen, eta horien artean gehienak mutilak dira (mutilak % 60, neskek % 40).

3.2. Alderdi kualitatiboak

Eskola kirolari buruzko alderdi kualitatiboak baloratzerakoan bi multzo handi bereiz daitezke: kirolen kalitateari buruzkoak, eta antolaketa egiturei buruzkoak.

Kirolen kalitateari dagokionez, bereizketa bat egin behar da: alde batetik ditugu sustapen jarduerak (irakatsi beharrekoa programa baten arabera antolatzen da eta horien ardura duten pertsonak horretarako prestatuta daude) eta teknifikaziokoak (salbuespenak albuespen, gauza bera gertatzen da), eta bestetik, lehiaketako jarduerak (parametro horiek nabarmen jaisten dira, eta hala erakusten dute heziketa eta jolas lehiaketei dagokien *Gipuzkoako eskola kirolaren kalitatearen ebaluaketa eta hobekuntzari buruzko azterketaren* emaitzek).

Nolanahi ere, azkeneko kasu horretan aldea dago modalitate batetik bestera, esaterako, gimnastikan, igeriketan, judoan, karatean, piraguismoan, belan, eta abarretan, teknikariek prestakuntza maila egokia dute, titulazioen egungo egoera kontuan hartuta, nahiz eta irakaskuntzaren programazioa batzuetan eztabaidagarria izan, eta beste modalitate batzuetan, berriz, hala nola, futboleko, saskibaloian, eskubaloian, eta abarretan, gabezia handiak daude.

Errendimenduan hasteko lehiaketei dagokienez, ez dago horiei buruzko datu edo azterlan berezirik, nahiz eta haien egoerak antz handia duen heziketa eta jolas lehiaketekin, hau da, kirol batzuetan, esaterako, igeriketan, gimnastikan, tenisean, eta abarretan, teknikariek titulazio eskakizunak betetzen dituzte, eta beste batzuetan, berriz, futboleko, kasu, oso gabezia handiak daude, Gipuzkoako futbolarren plan estrategikoaren barruan bere garaian egin zen azterlanaren arabera.

Lehiaketen laguntza edo kontrol teknikoa dela eta, egoerak nabarmen aldatzen dira kirol batetik bestera. Kirol batzuetan, hala nola, igeriketan, judoan, karatean, arrauketan, gimnastikan, eta abarretan, egoki prestatutako epaileak edo arbitroak dituzte, eta saioak duintasun handiz antolatzen dira; beste modalitate batzuetan, berriz, hala nola, futboleko, saskibaloian, areto futboleko eta abarretan, arbitratze lan gehienak berariaz prestatu gabeko jendeak egiten ditu, parte hartzen duten taldeen entrenatzaileek, normalean, txandaka egiten baitituzte lan horiek.

Antolaketa egiturei dagokienez, ez dira gutxietsi behar ikastetxeetan eskola kirola kudeatzeko eta bultzatzeko zerbitzuei dagokienez lortutako emaitzak, ez eta kirolen kalitate maila areagotzeko herri eta eskualdeetan egindako ekimenak ere, hala nola, Oarsoaldean eta Bidasoaldean, ez eta teknikariak prestatzeko lurraldeko herri edo eskualde dezentetan egindako ikastaroak ere.

Jardueretan laguntza teknikoa emateko ardura duten federazioak arduradun tekniko hornitzeko ahaleginak ere ez dira gutxietsi behar, horiei esker egin baitira ondorengo gauza hauek, besteak beste: joko-arau egokituak negoziatzea eta gero haiek ezartzea, sustapen eta teknifikazio jarduerak irakasteko programak antolatzea, teknikariak prestatzeko jarduerak bultzatzea, eta dokumentazioa prestatzea kirol modalitateak irakasteko/ikasteko prozesuak arrazionalizatzeko eta egituratzeko, kategoria edo adin tarte bakoitzean lehentasunez landu beharreko irakaskuntza helburuak eta edukiak adieraziko dituzten prozesuak, hain zuzen ere.

Egitura kontuak amaitutzat jotzeko Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua eratu eta abian jartzeko prozesua aipatu nahi dut.

Azkenik, atal honekin bukatzeko, aipatu behar da Foru Aldundiak azken urteotan izandako helburu finkoa Gipuzkoako eskola kirolaren kalitate maila igotzea izan dela eta hala dela orain ere. Hori frogatzeko, hor daude lehen emandako datuez gain, egin diren zenbait azterlan, proiektu edo txosten, hala nola, lehen aipatutako *Kalitatearen ebaluaketa eta hobekuntza, Eskola kiroleko irakaskuntzaren kualifikazioari buruzko txostena*, zeinaren ondorioek jarraibide gisa balio izan baitute begiraleak prestatzeko oinarrizko ikastaroak eta irakaskuntza-ikas-kuntza programak edota *Lan harremani buruzko txostena* proposatzeko orduan.

ERREFERENTZIAK

Abuztuaren 31ko/1989 Foru Dekretua, benjamin eta kimu kategorietan lehia izaerako kirol jardueren antolakuntzaren kontrola artikulatzen duena. (Gipuzkoako Agiri Ofiziala-BOG 1989ko irailak 4, 167 zenbakia)

160/1990 Dekretua, 1990eko ekainaren 5ekoa, eskola kirolari buruzkoa (EHAA-BOPV 1990eko uztailak 2, 130 zenbakia)

337/1994 Dekretua, uztailaren 28koa, eskola kirola arautzen duen Dekretua aldatzen duena (EHAA-BOPV 1994ko abuztuak 24, 160 zenbakia)

14/1998 Legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena (EHAA - BOPV 1998ko ekainak 25, 118 zk.)

Kirolaren Euskal Plana, 2003ko uztailaren 22an Eusko Jaurlaritzak onartuta (Euska Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003 urtea)

Gipuzkoako eskola kirolaren kalitatearen ebaluaketa eta hobekuntzari buruzko azterketa (EHUko Jose Antonio Arruza eta best., Kirolartek argitaratuta, 2001eko urtarrilla)

39/1998 Foru Dekretua, martxoaren 31koa, Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluaren sorkuntza, osaketa eta funtzionamendu arauari buruzkoa (GAO-BOG 1998ko apirilak 8, 66 zenbakia)

Foru Agindua, 1998ko irailaren 17koa, Eskola Kiroleko Lurralde Kontseilua- ren funtzionamendu araudia (GAO - BOG 1998ko irailak 24, 182 zenbakia)

Eskola kiroleko irakaskuntzaren kualifikazioari buruzko txostena (Eskola Kiroleko Lurralde Kontseiluaren ponentziaren txostena, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaruta, 2001eko urria)

Lan harremani buruzko txostena (EHUko Koldo Irurtzun irakaslea, Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratuta, 2001eko otsaila)